

2

aadoptia

Adopzio ondorengo gidaliburua hezkuntza-arloko
profesionalentzat eta gizarte-eragileentzat

Hezkuntza-gakoak

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

**ETXEBIZITZA ETA GIZARTE
GAIETAKO SAILA**

Gizarte Ongizateko Zuzendaritza

**DEPARTAMENTO DE VIVIENDA
Y ASUNTOS SOCIALES**

Dirección de Bienestar Social

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia

Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Vitoria-Gasteiz, 2006

Adopzio ondorengo gidaliburua hezkuntza-arloko profesionalentzat eta gizarte-eragileentzat : hezkuntza-gakoak / [egileak, Agintzari Gizarte Ekimeneko Kooperatiba]. – 1. argit. – Vitoria-Gasteiz : Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia = Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco, 2006
p. ; cm. – (Adoptia ; 2)

Contiene, además, con portada y paginación propias, texto contrapuesto en castellano: "Guía de postadopción para profesionales ..."

ISBN 978-84-457-2514-6

1. Niños adoptados-Psicología. 2. Educación de niños. I. Agintzari, Cooperativa de Iniciativa Social. II. Euskadi. Dirección de Bienestar Social. III. Título (castellano).

IV. Serie

159.9-058.865

37.04-058.865

Argitaratutako izenburuak:

1. Familientzako adopzio ondorengo gidaliburua.
2. Adopzio ondorengo gidaliburua hezkuntza-arloko profesionalentzat eta gizarte-eragileentzat.

Argitaraldia: 1.a, 2006ko abendua

Ale-kopurua: 5.000

© Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa
Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Saila

Internet: www.euskadi.net

Argitaratzailea: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco
c/ Donostia-San Sebastián, 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz

Egileak:  Agintzari Gizarte Ekimeneko Kooperatiba
Area, 3. Konsultoria Soziala. Puente de Deusto, 7 - 48014 Bilbao

Fotokonposizioa: EPS, S.L.

Inprimaketa: Gráficas Santamaría, S.A.

ISBN: 978-84-457-2514-6

L.G.: VI-549/06

Aurkezpena

Gidaliburu bat bizi-inguru berriari hobeto egokitzeko

2005eko otsailaren 18an, Hautzaroa eta nerabearoa zaindu eta babesteari buruzko legea onetsi zen. Hor instituzioen eta gizartearen jarduerak araututa daude, haurren eta nerabeen eskubideak defendatzea helburu dutenak. Horrela bermatu nahi da haurren eta nerabeen garapen pertsonala eta soziala, honako printzipio hauei jarraituz: diskriminaziorik eza, haurren gorenako garrantzia, babesa eta parte-hartzea.

Legeak Eusko Jaurlaritzari aitortzen dio eskumena duela familia-harrera eta estatuko nahiz nazioarteko adopzioa sustatu eta errazteko, gizartearen parte-hartzea eta elkartasuna bultzatze aldera. Ildo horretatik, ahal delarik, familiaguneari lehentasuna emango zaio haurren eta nerabeen garapen orokorraren bermatzaile nagusia delakoan.

Urteen joanean, adopzio-prozesua helduz eta aldatuz joan da. Eta beste hainbeste gertatu da alternatiba horren alde egin dutenei arlo publikoak nahiz pribatuak ematen dien erantzunarekin. Esparru horretan kokatzen da adopzioaren ondoko uneetan familiari ematen zaion laguntza, familian, ikastetxean eta oro har gizartean ematen dena. Horrela, erraztasunak eman nahi dira adopzio ondoko prozesua ahalik eta ondoen gerta dadin eta prozesu horretan zailtasunik izan ez dadin.

“Adoptia Hezkuntza-gakoak” izeneko adopzio ondoko gidaliburua Agintzari kooperatibak prestatu du eta Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailak diruz lagundu. Gidaliburua laguntza-tresna izateko sortu da eta hezkuntzako profesionalei, gizarte-eragileei eta familiei zuzenduta dago, adopzio ondoko aldian orientazioa emateko. Adopzio ondoko une zaillean eskolaren eta familiaren arteko tartea murriztea du helburu.

Gidaliburu honekin, sentsibilizazio eta orientazio prozesu bati heldu nahi diogu hezkuntzaren eremuan eta gizarte arloan lanean ari diren profesionalei begira. Horrela, adoptatutako haurren bizitzan sor litezkeen zailtasunei aurretiak antzeman ahal izango zaie eta zailtasun horiek konpontzeko beharrezko hezkuntza-gakoak eskuratu ahal izango dira.

Hezkuntzako profesionalei eta gizarte-eragileei zuzendutako adopzio ondoko gidaliburu hau joan den urtean argitaratu genuenaren osagarria da (ale hura adopzio-familiei zuzenduta zegoen). Hiru gidaliburuz osatutako bilduma baten bigarrena duzu oraingo hau. Bilduma laster geratuko da osaturik, hirugarren gidaliburu batekin, adoptatutako haurrei zuzendutako gidaliburu batekin hain zuzen ere.

Dudarik gabe, “Adoptia Hezkuntza-gakoak” izeneko adopzio ondoko gidaliburu hau funtsezkoa izango da hezkuntzako profesionalentzat, gizarte-eragileentzat eta haurren bat adoptaturik daukaten familientzat, haurrek errazago helduko baitiote beren familia-ingurune berriari, hezkuntza-esparruari eta gizarte berriari, alegia beren bizi-esparru berriari, egokitzeko egin behar duten lan zail baina oso esker oneko izaten den horri.

JAVIER MADRAZO LAVÍN
Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburua

Aurkibidea

1. Hezkuntza-gakoak	7
2. Haur adoptatuak eskolara egokitzea	9
2.1. Mainerren lehenengo eskola-egunak	9
2.2. Abandonua, lotura afektiboaren nahasteak eta gabezia afektiboa	10
2.3. Haur adoptatuei eragindako kaltea eta haien ibilbidea eta hazkuntza	11
2.4. Egokitzea: galderak eta zalantzak	12
2.5. Harremanak integratzeko prozesua	13
2.6. Mikel "Izugarría", on-puska hori	15
2.7. Ikaskuntza-prozesuan sor daitezkeen eta hura kutsa dezaketen ohiko zailtasunak	16
3. Ikaskuntzaren garapena haur adoptatuengan	17
3.1. Maider eta Jon eskola-bizitza konplexuak	17
3.2. Ikasteko desabantailak eta zailtasun-gainkarga	18
3.3. Hezkuntza-premia espezifikoa eta bereziak dituzten ikasleak	19
3.4. Haien ikaskuntza-prozesua bultzatzeko hainbat modu	20
4. Haur adoptatua izatea	21
4.1. Ikasle adoptatuentzat adopzioak duen esanahia, ikasleen eboluzio-etaparen arabera	21
4.2. Adoptatua izatea gelan lantzeko edukiak	22
4.3. 7 urtetik beherakoei adopzioa azaltzeko ipuina, Bisa-Misa hartzatxo adoptatuaren istorioa	24
4.4. 8-12 urteko ikasleentzako kontakizunak	25

5. Adoptatuak hazten direnean. Haien nerabezaroa	27
5.1. Beste etapa bat Asierrentzat	27
5.2. Pubertaroa eta nerabezaroa, desberdinak horiek ere adoptatuentzat	28
5.3. Nola lagundu nerabe adoptatuei	30
6. Eskolaren egitekoa	31
6.1. Eskola erresilientziarako eremu gisa	31
6.2. Hutsuneak betetzeko eskolak ahalbideturiko ekintzak	32
7. Eskola eta familia: tandem egokia haur adoptatuarentzat	33
7.1. Adopziozko familia, familian bizitzeko beste modu bat	33
7.2. Gainerako haurrei dakartzkien ondorioak, eta haur horien nahiz haien gurasoen kexak	34
7.3. Familiaren eta eskolaren arteko lankidetzaren printzipio gidariak	35
8. Bestelako laguntza-baliabideak	36

1. Hezkuntza-gakoak

Hezkuntza-gakoak izenburuaz argitaratu da Eusko Jaurlaritzaren Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailak diruz lagundutako eta Agintzari Gizarte Ekimenerako Kooperatiba Elkarrekin egindako gidaliburu hau; hezkuntza-arloko profesional eta gizarte-eragileentzako gidaliburu bat da. *Familientzako Adoptia Gidaliburuak*¹ (2005ean argitaratua) bezala, honako helburu hau du: haur adoptatuen premiak ulertzeko gakoak ematea, batez ere haur horien hezkuntza- eta sozializazio-prozesuari dagokionez.

Gidaliburua baliabide erabilgarri eta ulerterraza izatea da helburua, haur adoptatuek gizarte- eta hezkuntza-arloan izan ditzaketen premiei aurre egiteko hasierako orientazioa emango duena. Erraz eta bizkor irakurtzeko formatuan argitaratu da, eta abandonu-esperientziarekin, eskola-integrazio eta ikaskuntzarekin, atxikimendu-harremanarekin, nerabezaroarekin, eta abarrekin loturiko egoera espezifikoko azaldu dira bertan. Horretarako, hainbat kasu aurkeztu dira, Maider, Mikel, Jon eta Asier neska-mutilen istorioen bitartez.

Horri dagokionez, garrantzitsua da honako hau nabarmentzea: haur adoptatuen hezkuntza- eta eboluzio-prozesuei buruz egindako karakterizazioarekin ez diegu haur horiei “berezien” edo “zailen” etiketa jarri nahi, dauzkaten premiak dramatizatuta. Alabaina, narratzaile baliabidea da, pertsona adoptatuaren egoerari loturiko bizi-zertzeladak dagokien testuinguruan kokatzeko. Izan ere, zertzelada horiek ez dira berdinak, ezta orokorrak ere –haur bakoitza bizitza-historia baliotsu eta errepikaezina da berez–, baina haur adoptatuek bizi izandako abandonu-problematikaren erakusgarri eta adierazleak dira. Profesionalok ezin dugu alde batera utzi, batetik, haur adoptatuek abandonuko eta babesgabetasuneko egoerak bizi izan dituztela (denen egoera berdina izan ez arren, horren inguruko egoerak askotarikoak baitira), eta, bestetik, haiek babesteko eta haien eskubideak bermatzeko jarduna dela adopzioa; hain zuzen ere, haur horiek familian integratzeko neurri bat da, abandonuaren bizipena gainditzea ahalbidetzen duena, betiere Boris Cyrulnik psikiatra eta etologo frantsesak esan zuena gure eginda: “zorigaitzoko haurtzaroak ez du bizitza osoa baldintzatzen”.

¹ AGINTZARI GIZARTE EKIMENERAKO KOOPERATIBA ELKARTEA (2005): *Familientzako adopzio ondorengo gidaliburua: Etorri da dagoeneko, zer egingo dugu orain?* Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia, Vitoria-Gasteiz.

Euskal Autonomia Erkidegoan, adopziozko familien kopurua 2.000tik gorakoa zen 2005. urtearen amaieran. Guztira, 2.500 haur adoptatu zeuden gurean, eta, horien artean, laurdena baino gutxiago dira Estatuan adoptaturikoak; beste guztiak nazioartean adoptaturikoak dira. Europa, Asia eta Latinoamerika dira nazioartean adoptaturiko haur gehienen sorlekuak. Adoptatzen diren haurren ezaugarriak askotarikoa dira: haurtxoak, haur txiki-txikiak, beste etnia batzuetakoak, anai-arreben taldeak, etab.

Lurraldea		Jatorria		Sorlekua		Generoa	
Araba	17 %	Estatua	26 %	Amerika	26 %	Mutikoak	37 %
Bizkaia	50 %	Nazioartea	74 %	Europa	48 %	Neskatxak	63 %
Gipuzkoa	33 %			Asia	25 %		

Guztira = 2.500 neska-mutiko eta 2.000 familia

Iturria: Adopzio ondoko aldia Euskal Autonomia Erkidegoan. Agintzari Gizarte Ekimenerako Kooperatiba Elkarteak egindako azterlana. Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailak diruz lagundua. Eusko Jaurlaritza. 2005.

Haur gehienak Haur Hezkuntzakoak eta Lehen Hezkuntzakoak dira, eta, hurrengo urteetan, haur horien kopurua hazi egingo da Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan. Profesionalentzako aholku-tresna da *Hezkuntza-gakoak* adopzio ondorengo gidaliburua, haur adoptatuen sozializazioan eta eskola-prozesuan sor daitezkeen zailtasunei aurre egitearren, eta, horretarako, eskola inklusiboaren ereduak aldarrikaturiko printzipio eta balioak aintzat hartu dira bertan.

“Ikasleek eskolako ibilbidean topatuko dituzten oztopoak gainditzea helburu duen hezkuntza-dimentsioa du abiapuntu (Eskola Inklusiboak). Izan ere, eskola inklusiboarekin, guztiek beren burua dagokien hezkuntza-erkidegoaren kideztat har dezaten eta gainerakoek ere halakotzat aintzatetsi ditzaten lortu nahi da. Horretan ez du zerikusirik beren gizarte-inguruneak, jatorrizko kulturak, ideologiak, sexuak eta etniak, edota egoera pertsonalak.²”

2 Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila. Eusko Jaurlaritza. Hezkuntza Berritzatzeko Programak 2003-2006. “Eskola inklusiborantz” ildoak, www.berrikuntza.net web-orrian.

2. Haur adoptatuak eskolara egokitzea

2.1. Mainerren lehenengo eskola-egunak

Mainerrek 4 urte ditu. Jatorriz txinatarra da, eta 18 hilabete zituela adoptatu zuten. Ane du amaordea eta harekin bizi da. Bizi den auzoko ikastetxe batean eskolatuta dago. Egokitzealdi desberdin eta berezia izan zuen. Oso zaila izan zen. Lehen eskola-egunean, patioan sartu bezain laster, amaren lepoari heldu zion eta negar bizian hasi zen, ohikoaz kanpoko nahigabez. Egokitze-prozesurako programaturiko asteak iragandakoan, Mainerrentzat nahikoa izan ez zela ikusita,aldi hori luzatzea erabaki zuen tutoreak, egokitzealdia Mainerren zailtasunetara hobeto egokitzearren. Hiru hilabete iragan ziren eta Mainerrek gaizki pasatzen zuen oraindik, bere burua zokoratu egiten zuen, ez zuen ezer egiten, triste zegoen. Gelatik irtendakoan ama berriz ikusten zuenean, berriz ere negarrari ematen zion, are amorrazio handiagoz; amarekin izan gabe emandako denbora itxaronaldi larrigarria zela edo zigortzat hartzen zuela zirudien. Etxean, Maider lasaitu egiten zen; hala ere, ohiz baino apetatsuago jokatzen zuen, gutxiago jaten zuen; gaeuz, berriz, zailtasun handiagoa zuen lo hartzeko, batzuetan amesgaiztoak izaten zituen, eta askotan Anerekin lo egiten zuen azkenean.

Mainerren aurrekariak, abandonu goiztiarra

Jaio eta handik hilabetera abandonatu zuten Maider (Li Wang). Haren ama biologikoak ezin izan zuen hazi, eta umezurtz-etxearen atean abandonatu zuen, ezkutuan. Li Wang (Maider) hotzez hiltzeko zorian egon zen; garaiz hartu zuten, ordea, eta ospitale batera eramane zuten; bertan, hiru hilabete eman zituen, behaketan. Desnutrizioa zuen eta oso ahul zegoen, lehen hilabeteko egoeraren ondorioz. Ondoren, umezurtz-etxe batean sartu zuten; bertan, 2 zaintzailek 50 haurtxo zaintzen zituzten. Egunero, 30 minutuko kontaktualdia baino ez zuen, jaten ematen ziotenean eta garbitzen zutenean. Negar egiten zuen, baina inor ez zitzaion joaten bere beldurrak kentzera. Haren denbora etengabeko hutsa zen, giza estimuluen eta gizarte-estimuluen aldetik. Ez zeukan nori irribarre egin, haren arreta lortuta, laztan edo mimoren bat egin ziezaion. Ane (amaordea) haren bila joan zenean, altuera txikiko haurtxoa zen Maider, enbor bat bezain zurruna, ez zuen irribarre egiten eta ezer gutxi behar zuen negar egiteko. Horrez gain, izugarriko antsietatez eta presaz irensten zituen biberioiak. 6 hilabeteko haurtxoa zirudien baina urte eta erdi zuen. Hasieran, autista zela ere pentsatu zuten. Erraz ikaritzen zen, ezin zen Anerengandik banandu, etengabe deitzen zion, orotarako. Ez zekien jolasten, ezta jostailuekin zer egin ere. Aneren besoetan egon besterik ez zuen egin nahi.

2.2. Abandonua, lotura afektiboaren nahasteak eta gabezia afektiboa

Maiderek oso bestelako zailtasunak ditu egokitzeke, bere gelako gainerako haurrekin alderatuta. Gabezia afektibo larria bizi izan du Maiderek, alegia, kalteberatasun eta babesgabetasun handieneko bizitzaldian ase gabe izan ditu oinarrizko premiak. Gelakideek lehen banantzea bizitzen hasi zirenerako, Maiderek ondo zekien zer zen abandonua bizitzea, ospitalean ingratsuta egotea, umezurtz-etxe pobre batean bizitzea eta amaz, zaintzailez, kulturaz, hizkuntzaz eta herrialdez aldatzea. Ikastetxera joateko Anerengandik banantzeak abandonua modu traumatikoan gogora ekartzea eragiten dio, baita beste galera emozional bat bizitzeko beldurra ere: Ane galtzeko beldurra, hain zuzen ere. Maider ez dago gainbabestuta, eta Anek ez du haren erreakzioen errua. Bizi izandako abandonuaren historiarekin eta familia berri batean integratzen ari denak bizi ohi dituen zalantza eta nahasketarekin zerikusi handia duten jokabideak agertzen ditu. Txiki-txikitako abandonua esperientzia traumatikoa da eta atxikimendu-nahasteak eragiten ditu. Atxikimendu-nahasteak eragiten dio Maiderri Anerengandik banantzeko zailtasuna, ez Anek gainbabesteak edo mizke hezteak.

Oinarri sendoa da atxikimendua, harreman berriak ulertu eta eraikitzeke, baita ikasteko ere. Atxikimendu-nahasteak hainbat modutan agertzen dira, eta sor daitekeenetako bat da Maiderrena. Nahaste horien ondorioz, zailtasunak sortzen dira mundua aztertzeke, harekin harremanetan aritzeko, nolakoa den jabetzeko eta gizakien asmoak ulertzeke. Atxikimendua da gizakiarengan patroi nagusia; egokitzeke, harremanetarako, eta jakintza, kontzientzia eta ikaskuntza lortzeko sistemen moldea da, alegia. Aurreneko 18 hilabeteen inguruan sortu eta osatzen da, eta haurrak hiru urte inguru dituenean finkatzen da. Oso zaila da atxikimendua aldatzea, baina lor daiteke baliabide egokiak erabilia. Atxikimendu motak haurren oinarrizko premiak asetzeko moduarekin du zerikusia. Premia horiek asetzen badira, atxikimendu segurua sortzen da: haurrak fidakorrek eta sortzaileak izaten dira, beren inguruko mundua beldurrik gabe aztertu eta bereganatzen dute, gizartearen aldeko eta laguntzarako jarrerak izan ohi dituzte, baita enpatiarako nahiz autokontrolerako gaitasuna ere. Aldiz, txiki-txikitako denbora luzean oinarrizko premiak erabat asetzen ez badira, atxikimendu insegurua sortzen da, eta, horren ondorioz, baita honako jokabide hauek ere: kontrolrik eza, beldurra, bat-bateko amorrazio biziak, ezinikusia, mesfidantza, enpatiarako zailtasunak, berriarekiko beldurra, etab. Adoptatzen ditugun haurrek abandonu-esperientzia bizia dute, eta, horrekin batera, honako esperientzia hauek ere bizi izan dituzte askotan: tratu txarrak, arduragabekeria, indarkeria, pobrezia eta gabezia handiak oinarrizko premiak asetzeari dagokionez.

2.3. Haur adoptatuei eragindako kaltea eta haien ibilbidea eta hazkuntza

Askoren ustez, adopzio-prozesuaren zailtasuna adoptatzen dituztenean haurrek duten adinaren araberakoa da. Ikusiko dugunez, hori ez da guztiz egia, eta, horri dagokionez, pronostiko hobea izango du honako bi kasu hauetako lehenak: 7 urteko neskatxa, inguruko maitasuna izan du eta ez du tratu txarririk jasan; adopzioari buruzko azalpenak eman dizkiote eta horretarako prestatu dute. Bestea, berriz, 2 urteko mutikoa da, tratu txarrak jasan zituen eta abandonatu egin zuten 18 hilabete zituela, eta ezin izan zuen atxikimendu-loturarik izan erreferentziatzko ezein heldurekin. Beraz, kalteen eta ondorioen larritasuna ez da faktore edo aldagai bakarraren araberakoa, hainbat faktore edo aldagairen elkarreaginaren araberakoa baizik.

Haur adoptatuen bizitzan honako faktore hauek zenbat eta gutxiago izan, hainbat eta kalte eta ondorio txikiagoak izango dituzte.

- ▶ Haurraren zaintzaileek emandako tratu txar fisikoak, tratu txar emozionalak, abusuak edo tratu ardura-gabea jasan izana.
- ▶ Erreferentziatzko pertsonekin atxikimendu-lotura adierazgarrien gabezia, eta, beraz, helduekin harreman seguru eta egonkorrik eduki ez izana.
- ▶ Abandonu-esperientzia eta tratu desegokiak bizi izandako denbora-tartearen iraunaldia eta bizi izandako instituzionalizazioaldiaren iraunaldia.
- ▶ Abandonu-esperientzia oso txikitán bizi izana. Abandonaturiko haurra zenbat eta txikiagoa izan, hainbat eta larriagoak izan daitezke ondorioak, haurrak kalteberagoak baitira.
- ▶ Laguntzako eta jasandako kalteak onbideratzeko baliabiderik eza.
- ▶ Haurrak bere jatorria, bere historia eta jasandako abandonuaren egiazko arrazoiak ez jakitea, eta bere buruari leporatzea abandonuaren errua.
- ▶ Tenperamentu hauskorra, heldugabetasun neuronal, eta bizitzako gertaera kaltegarriek eragindako estres, atsekabe eta sufrimenduarekiko kalteberatasuna.

2.4. Egokitzea: galderak eta zalantzak

Eskolako errekerimenduetara egokitzeko gaitasuna izango ote dute? Zer hizkuntza-eredutan? Haurra artatzeko prestatuta egongo ote da ikastetxea? Bizitza osorako nahasteak izango ote dituzte haur horiek?

- ▶ Eskuarki, egoera berrietara egokitzeko gaitasun handia dute haur horiek; hala ere, litekeena da gainerakoek baino ikuskatze-maila handiagoa eta baliabide gehiago behar izatea, baita ardura handiagoa eta errefortzu espezializatuak ere hainbat arlo eta intentsitate-mailatan.
- ▶ Askotan, hezkuntza-premia bereziak izaten dituzte, emozioaren, portaeraren eta ikaskuntzaren arloko nahasteen ondorioz, eta litekeena da premia horiek hezkuntza-prozesu osoan izatea. Atzerapenak izaten dituzte heltzeko prozesuan. Atzerapen horiek hainbat arlotakoak izaten dira eta bilakaera desberdina izan ohi dute. Behar bezalako arreta eta laguntza eta zainketa terapeutiko egokiak ematen zaizkienean, haien bizitza normalizatu egiten da eta jasandako kaltearen zati handi bat onbideratu egiten da.
- ▶ Emozioen eta harremanen arloetan egokitzeko egin behar izaten du haurrak ahaleginik handiena. Hizkuntzari dagokionez, adopziozko familiek honako esperientzia hau dute: haurrak ongi eta azkar integratzen dira.

Adopzioari loturiko gaiak landu behar ditu eskolak ala familiari soilik dagozkie?

- ▶ Adoptatua izatearen ondoriozko premiak aintzat hartuko ditu eskola inklusiboak.
- ▶ Funtsezkoa da adopziozko familiarekin koordinatzea eta hari zera jakinaraztea: dauden familia-egituren arteko bat dela adopziozko familia.
- ▶ Eskolak laguntza eman diezaioke adopziozko familiari, familia eta gurasotasun mota guztiei buruzko kontzeptuez jabetzea erraztuz. Eskola-curriculumean integratu beharreko seme-alabatasun motetako bat da adopzioa.

2.5. Harremanak integratzeko prozesua

Ikasle adoptatuak integratzeko prozesua eta haien bizi-esperientziak izan ez dituzten haurrena desberdin samarrak izan ohi dira. Adoptatuen integratzeko modua mundua ikusteko eta harekin harremanak izateko moduan eragiten duten bizi-gertaeren arabera da. Hiru elementu edo etapa bereiz daitezke prozesu horretan. Hirurok aldi berean gerta daitezke, testuinguruaren eta esku hartzen duten pertsonen arabera:

Egokitzea →	← Transferentzia →	← Erregresioa
Helduak aztertzea eta moldatu beharreko ingurune berria eza-gutzera bideratua.	Bigarren aldian, haur adoptatuen portaerak okerrera egiten du, bizi-eskema zaharren eta iraganeko gatazken orainerako transferentzia gisa.	Hirugarren aldian, erregresio-portaerak izaten dituzte, haien adinarekin bat ez datozen portaerak, alegia. Portaera horiek ez dira nahitaez atzerapentzat hartu behar.

Egokitzea: Hasieran, heldutasunez eta beren burua aski balute bezala jokatzeko dute

- “Eztei-ogien” garaian edo egokitzearen hasierako fasean, tratua eta harremana goxoak dira. Maistraren edo maisuaren onespina lortu nahiko du haurrak, gustura egongo da ikastetxean eta bere artean pentsatzen du: “Zintzoa eta helduen gustukoa izan behar dut, galdu eta haserrarazi nahi ez baditut”.
- Eskaintzen diotena azertu eta behatu behar du, eta leku seguruan ote dagoen ala ez egiaztatu behar du. Hasieran, ez da oso fidakorra, eta berriz ere abandonatuko dutela uste du, ia aparteko arrazoirik gabe. Mesfidati bizi da. Harreman berriaren mugak eta aukerak ezagutzeko beharra du.
- Harreman hori sendotzen den heinean, haurra helduez fidatzen hasiko da, eta, konfiantza hori areagotu ahala, modu irekiagoan adieraziko ditu bere emozio eta traumak.
- Kontrakoa badirudi ere, oraindik ez ditu helduen arauak edo aginpidea bereganatu eta integratu.

Aurreko sufrimendu-esperientziak orainera transferitzea: okerrera egitea hobekuntzaren seinalea da

- Portaerek okerrera egitea –kasketak, denari ezezkoa ematea, desobeditzea, oilarkeriaz jardutea, gezurrak esatea, erasoak, etab.– hainbat modutan interpreta daiteke, hala nola “zerbait gaizki egiten ari gara” pentsatuta, edo “orain arte inoiz ez zaigu suertatu era horretako ikasleen egoerei aurre egin beharra”, edo, are gehiago, “gelakideak haserrearazi besterik ez du egin nahi”.
- Hala ere, askotan, hezkuntza-harremanean sorturiko konfiantzari esker, haurrek helduengan islatzen dute beren ezinegona, gatazkak sortuz, helduek ezinegon hori onbideratzen laguntzea lortzeko. Hezitzaileak ez dira haur adoptatuaren erasoan, kexen eta haserrealdien jatorria, ezta jomuga ere, horien guztien hartzaileak baizik. Haiengan duten konfiantzaren eraginez, sentitzen duten amorrazioa, beldurra, mesfidantza eta agresibitatea bideratuko eta neutralizatuko dutela uste dute.
- Iraganeke emozio eta gatazkak, bere historia pertsonala, oraingo unera, oraingo harremanera, transferitzen ditu haur adoptatuak, ikasiak dituen “bizirauteko portaeraren” patroiak aktibatuz. Iraganean, helduek huts egin zioten, eta, orain, ingurune berrian eskaintzen dioten lotura fidagarria, sendoa eta egiazkoa dela egiaztatu behar du. Fidagarriak iruditzen zaizkion helduei nolabaiteko aginpidea aitortzen hasten zaie.
- Integratzeko prozesua kontraesankor eta harrigarri samarra gerta daiteke. Irrotasuna eta goxotasuna adierazi behar dira aldi berean, norberaren ziurtasunik eza kontrolatuz. Baldintzarik gabe onartzen dituztela nabaritzen jarraitu behar dute haur adoptatuak.

Erregresioak aurrerapenaren adierazgarri; portaera heldugabeak hutsuneak betetzeko erabiltzen dituzte

- Iraganean izandako bizimoduaren ondorioz zenbait haur-premia asetzeko aukerarik izan ez duen haurra hutsune horiek betetzeko gogo nabaritzen hasten da, betiere lehen mailako desio jakin batzuk ase nahian. Hain zuzen ere, haurtxo gisa tratatzea eta onartzea nahi du, besoetan har dezaten, amaren sabeletik berriz ere jaio nahi du, etab. Azken batean, bizi izan ez duena bizi nahi du. Erregresio-portaera horiek ez dira ez bizitzaren eremu guztietan gertatuko, ezta etengabe ere, eta desagertu egingo dira desio jakin batzuk ase ahala. Haurraren aurrerapenaren adierazgarri dira erregresioak, ez atzera egiten ari den seinale.
- Erregresioek emozio-arloko aurrerapenak ahalbidetzen dituzte, eta hezitzaileek eremu eta denbora kontrolatuetan kudeatu behar dituzte. Joko-garaiak eta tutoretzak une egokiak dira era horretako jokabideak modu bideratuan adieraztea ahalbidetzeko.

2.6. Mikel “Izugarría”, on-puska hori

Mikelek 8 urte ditu; 4 urte zituenean adoptatu zuten; errusiarra da jatorriz, eta 6 urteko arreba du, adoptatua eta jatorriz errusiarra hura ere, baina ez dira anai-arreba biologikoak. Haren gurasordeak eskolarekin lankidetzan aritzen dira eta maiz koordinatzen dira harekin. Haur grazioso eta asmotsua da, eta batzuetan bizitzari buruzko hausnarketa harrigarriak egiten ditu, filosofo hutsa da gure txikia. Gelakideek nahiko ongi onartu dute, sufritzen duen edonori elkartasuna adierazten diolako eta bihotz onekoa delako; baina kritikak ez ditu ongi hartzen. Erraz mintzen da kritikekin, eta “hitzetatik ekintzetara igarotzen da” berehala, alegia, desadostasun txikia behar du borrokan hasteko. Batzuetan, gainerako haurrek ez dute harekin jolastu nahi izaten, negarrez amaitzen dute-eta. Gelan, berehala oharkabetzen da, eskolaren haria galtzen du, ezin dio arretari eutsi eta ez da geldirik egoten. Orduan, aspertu eta besteak zirikatzen ditu. Etengabe eskatzen du laguntza, lan errazentarako ere, eta eskatzen duen arreta lortzen ez badu, haserretu egiten da.

Zerbaitekin ados ez badago, egoskortu egiten da eta berea egitea gustatzen zaio, horretarako gezurra esan behar badu ere. Beti esaten du gainerakoek dutela denaren errua eta berari bakarrik egiten diotela errietan. Maisu-maistrek dagoneko ez dakite nola zigortu; ongi portatu eta zintzoa izan nahi duela esaten du Mikelek; hala ere, asmo horiek “ez diote luze irauten”. Gaizki egindako zerbait damutzen zaionean, zintzoa bezain iragankorra izaten da damu hori. Haren esanetan, amorrazioak gainditu egiten du eta ezin dio hari eutsi, “barneko zerbaitek gauza txarrak egitera bultzatzen duela, halakorik egin nahi ez duen arren”. Ez daki gatazkak kudeatzen, ezta kideekin izaten dituen desadostasunak ere, oso erraz galtzen baitu kontrola.

Lehenagoan, gelarako ilaran, neska bat harekin behaztopatu zen nahi gabe eta sekulako bultzada eman zion Mikelek, ia eskaileretan behera bota zuen neskatua. Mikelek behin eta berriro zin egin zuen neska hasi zela, eta, beraz, neska zigortu behar zutela. Neska-aren ama zuzendaritzara joan zen kexatzera, eta Mikelen tutorea bi familiekin elkartu zen. Mikelen gurasoek, berriz, egoera ulertzen dute, baina ez dakite zer gehiago egin. Errietan egiten badiote, oraindik ere maite ote duten galdetzen die. Gainera, asko kostatzen zaio ikaste-erritmoari eustea, erraz blokeatzen da eta ikasitakoa ahazten du. Tontotzat hartzen du bere burua, maila errepikatzeke beldur da, eta eskolako eskakizunek tentsio handia eragiten diote.

2.7. Ikaskuntza-prozesuan sor daitezkeen eta hura kutsa dezaketen ohiko zailtasunak

Autokontrola askotan galtzea, bat-bateko kasketa biziak eta erantzun bortitzak

- Haur horiek, berez, ez dute nortasun gogorra, haien nortasun-egitura da gakoa. “Nia” ahulduta dute, eta “ni” horrek betebeharraren eta atseginaren arteko bitartekaritza egin behar duenean, ez du hartarako indarririk eta ezin die eutsi senak agintzen dizkion desioei. Horren ondorioz, amorrazioak, adorerik ezak, tristurak, nekeak eta ongi pasatzeko desioak gidatuta jokatzeko dute, kontrolik gabeko emozioek gidatuta jokatu ere, arauetara egokitu gabe. Izaten dituzten kasketek mintu, nahasi eta zoratu egiten dituzte, kontrolik eza eta ezintasuna sentiarazten diete. Izaten dituzten haserrealdien eta haien ondorioen beldur izaten dira. Sarritan, barneko zerbaitek, amorrazioak alegia, gairitu egiten dituela eta gauzak konturatu gabe egitera bultzatzen dituela esaten dute, zailtasun horren adierazgarri.

Mesfidantza, bizi-ezkortasuna eta beti tratu bidegabea eta urria jasotzeko sentimendua

- Atxikimendu inseguruak bizitza beste modu batean ikustea eragiten du. Mundua leku arriskutsu, ez-seguru, beldurgarri eta zentzurik gabekotzat hartzea eragiten du. Abandonuaren eta horren inguruko zertzeladen ondorioz, bizirik atera denaren jarrera hartzen dute, sor daitezkeen arrisku guztietatik babestekoa, eta, badaezpada ere, ez dute ezer onik espero, ez ezergatik, ez inorengandik. Edozein unetan abandonatuko dituztela uste dute, eta horren abisuztat hartzen dituzte kritika eta errieta.

Autoestimua txikia, frustrazioarekiko tolerantzia txikia eta atsegina lortzeko nahi konpulsiboa

- Oso txikitik abandonaturiko haurrek, haur adoptatuek esate baterako, beraiekin loturiko gauzat hartzen dute abandonua. Behar adinako balioa ez zutelako abandonatu zituztela uste dute, inork ez baitu ezer baliozuri abandonatzen. Ohiz bizi dituzten porrot, gatazka eta zailtasunek baliogabeziaren ideia hori indartzen dute, eta, beraz, gainerako haurren adinako baliorik ez dutelako ideia sendotu egiten da pixkanaka.
- Honako goiburu honek gidatzen du haur horien portaera: “goza ezazu gaur eta orain ahal duzun guztia, ez baitakizu gero horretarako aukerarik izango ote duzun”. Unea aprobetxatu behar da; izan ere, bizitza oraina da, iragana beldurgarria da eta etorkizuna, berriz, ezin da aurreikusi eta ez da ziurra. Eguneroko frustrazioekiko tolerantzia txikia dute, eta porrot egiteari dioten beldurra antsietate-iturria da, kontrolatzen eta leuntzen ez dakiten antsietate-iturria, hain zuzen ere. Ez dakite kritika egoki onartzen.

3. Ikaskuntzaren garapena haur adoptatuengan

3.1. Mainer eta Jon eskola-bizitza konplexuak

Gelan, neska isila, herabea eta ekimen txikikoa da Mainer. Gauzak eskaini egin behar zaizkio, margotzen edo jolasten has dadin. Jarduerak jarraitzeko, haren gainean egon behar da. Jaramonik egiten ez bazaio, orduak eman ditzake jarduera berean bere baitan bilduta. Ziurtasunik eza handia izaten du zuzeneko galderak egiten dizkiotenean. Isilpean bada ere, arreta eskatzen du etengabe, eta andereñoarengandik hurbil egoten saiatzen da. Kritikaren bat egiten diotenean edo zerbait egiteko eskatzen diotenean, izutu egiten da. Margotzea gustatzen zaio, baina bere adinarekin bat ez datozen marrazki eta zirriborroak egiten ditu; gainera, askotan egiten ditu motibo berberak. Zailtasunak ditu gainerako haurrekiko harremanetan, asko kostatzen zaio bere eskubideak baliatzea, eta besteek pixka bat abusatzen dute hartaz. Gogaitzen denean, negar bizian hasten da bat-batean edo bakartu egiten da, eta heldu batek egoera horretatik noiz “salbatuko” zain geratzen da. Era berean, oso apetatsu ager daiteke, eta berea egiteko xorro-xorro dabilenaren maleziaz jokatzen du.

Jon Lehen Hezkuntzako hirugarren mailan dago, eta ezinean dabil; mutiko bizkorra da, baina ez da batere saiaturia. Berehala asperetzen da eta gelakideak zirikatzen hasten da, gorabeherarik txikiena ere aprobetxatuta. Edozein zarata edo ohiz kanpoko egoerak atentzioa ematen dio eta arreta galtzen du. Ez da geldirik egoten bere aulkian eta han-hemenka ibiltzen da gelan barrena, gelditu gabe. Haren familiak hiperaktiboa dela uste du. Batzuetan, harrigarria suertatzen da zein azkar ulertzen duen dena; beste batzuetan, berriz, amnesia jota dagoela dirudi, ez baita ikasitako ezertaz gogoratzen. Haren errendimendua haren gaitasunak baino askoz ere txikiagoa da. Irakasleak gainbegiratuta eta nolabaiteko presioa eginda, errendimendu handiagoa ateratzen du. Ona da matematikan; gaztelaniazko lengua irakasgaietan eta, idazmenean, berriz, atzeratuta dago; hala ere, nahiko ongi hitz egiten du. Eskulanetan oso trebea da, eta, horretan dabilenean, Jon gelan ez dagoela dirudi, beste guztietan ez bezala. Kirol-jarduerak ere gustukoak ditu, oso lehiakorra da, lehena izan nahi du beti. Gelakideekin etengabe borroketan aritzea da gatazka-iturririk handiena. Asko kostatzen zaio bere burua kontrolatzea eta lasaitzea. Berehala haserretzen da, eta probokaziorik txikiena irain barkaezintzat hartzen du.

3.2. Ikasteko desabantailak eta zailtasun-gainkarga

Maiderek eta Jonek bizirauteko jasan behar izan zituzten abandonuak eta bizi-baldintzek ondorio txarrak utzi dizkiete nortasun-egituretan eta ikaskuntza-prozesuetan. Gabezia afektiboak (maila fisiko, afektibo, sozial eta kognitiboan dituzten oinarrizko premiak ez asetzea), atxikimendu inseguruak, eta harremanen arloko nahaste eta zailtasunek eragin txarra dute haien ikaskuntza-prozesuan; honako portaera hauen bidez ager daiteke eragin hori:

- Zereginak hasteko, jarraitzeko eta amaitzeko autonomiarik, ekimenik, motibaziorik eta gogorik eza.
- Eskakizunak egitea etengabe, arreta edo emozioei eustea lortzeko, berrespen pertsonalerako, edo laguntza lortzeko, zeregin txikien-tarako ere.
- Ikaskuntza irregularra, gorabehera handikoa, erritmorik gabea, eta oso desberdina arloaren arabera. Haien ikaskuntza-prozesuaren bilakaera-kurbak “errusiar mendia” dirudi. Ikasitakoa oso modu irregularrean bereganatzen dute, eta askotan ahazten dute.
- Aztura eskas eta ezegonkorrak, ordenari, ikaskuntzari, ahalegintzeari, lan egiteari eta diziplinari dagokienez.
- Arretari eusteko eta kontzentratzeko zailtasunak. Askotan, ezin izaten dituzte pentsamenduak kontrolatu. Hiperaktibitatea.
- Eskolarako motibaziorik eza, porrot ugari izaten dituztelako eta ez dakitelako parekoekiko gizarte-harremanetan dituzten zailtasunak konpontzen.

Aipatu dugunez, desabantailaz hasten dute eskola-bizitza, adin bereko gainerako hurrekin alderatuta. Ahalegin handiagoa egin beharko dute eskolan integratzeko. Horrek nekea eragiten die, eta, askotan, “bizi-tonurik eza” izaten dute arretari eusteko edo gauzekiko interesa agertu eta ikaskuntzaren motibazioa izateko; beste askotan, berriz, neke horrek eraginda, hiperaktibitatea agertzen dute. Haur horien-gan, bizi-prozesuaren ondorioa da hiperaktibitatea, eta, beraz, beste sintoma bat da. Ez da arazoaren sorburu bakarra, eta haur horien emozioen testuingurua kontuan izanik tratatu behar da. Aipatu dugunez, haur horien eskola-ibilbidea goi-mendiko igoera da, atzerapausoz eta gorabeheraz josia, paseo lasaia baino gehiago. Ez da arraroa etapa guztietan justu-antzean ibili eta ozta-ozta aurrera egin duten ikasleek, pubertaro eta nerabezarora iritsi eta bat-batean sekulako gainbehera izatea errendimenduari nahiz motibazioari dagokienez.

3.3. Hezkuntza-premia espezifiko eta bereziak dituzten ikasleak

Adoptatu baino lehen haur adoptatuek izandako bizi-esperientziek –txiki-txikitakoek ere bai– arrastoa uzten dute eta ondorio txarrak eragiten dituzte haurren emozioen eta gizartearen eremuan; baita gaitasun instrumentalen, eta, beraz, adimenaren eta ikaskuntzaren eremuan ere. Bizi-esperientzia horiek eragindako premiak honako hauek dira.

Abandonuaren, arduragabekeriaren eta/edo tratu txarren ondoriozko zauri emozionalak dituzten haurrak izateagatiko premia espezifikoak

- Eskola-testuinguru seguruak eta harreman egonkorak izatea ahalbidetuko dien gizarte-dinamika dutenak. Eskola-giro egonkor eta segurua, “baldintzarik gabe” onartzen dituztela hauteman eta galdu zuten edo kaltetuta duten oinarritzko segurtasuna lehenera dezaten.
- Jasandako kalteak onbideratzea, baliabide pedagogiko egoki, berezi eta espezializatu bidez (arreta, hiperaktibitatea, memoria, psikomotritzitatea, logopedia, etab.).
- Aldaketarako prestatzea eta haien harreman-ingurunean aldaketarik ez egitea, aldaketa horiek “abandonutzat” eta “hausturatzat” hartzen baitituzte, eta horrek desegonkortasuna eta segurtasunik eza eragiten die (tutorea edo ikasgela aldatzea, etab.).
- Haien historia, zertzeladak eta jatorria errespetatzea. Ongi eraturiko kontzeptu eta kognizioak behar dituzte zer gertatu zaien ulertzeko. Era berean, laguntza behar dute beren egoeraz eta nolakotasunaz jabetzeko, beren iragana eta bizipenak gainditzeko.

Hezkuntza-premia bereziak

- Arreta, konpainia, laguntza eta gainbegiratze handiagoak. Gelako zereginetarako laguntza eta konpainia.
- Honako esperientzia hauek, aurrerapen edo hobekuntza txikiengatik ere: emaitza ona, eraginkortasuna, goraiatzea eta aintzat hartzea.
- Denboraren faktoreari dagokionez, begiramen berezia erabakiak hartzeko prozesuetan eta konpainia egitean. Denborak beste dimensio bat du haur horiengan; horregatik, saritzeko edo zigortzeko estrategiak, gorespentak eta gaitzespenak denbora errealean kudeatu behar dira, ahal dela, geroratu edo loturarik gabe kudeatu ordez.
- Xenofobiari eta parekoen arteko indarkeriari aurre egiteko plan proaktibo eta prebentziozkoak. Zero tolerantzia eskola-komunitateko edozein kideren arrazakeria-jarreretikiko.

3.4. Haien ikaskuntza-prozesua bultzatzeko hainbat modu

- Ematen zaien arreta areagotzea. Laguntzako eta konpainiako plusa behar dute integratzeko eta ikasteko. Jarraibideak urratsez urrats behin eta berriz esatea lagungarria da gertakizunen segida uler dezaten. Helduen laguntza eta konpainiarik gabe zailtasunak dituzte errendimendua hobetzeko edo ikaste-eritmoari eusteko. Bakarrik jarduten dutenean, galdu, blokeatu, trabatu, aspertu eta gogogabetu egiten dira, eta, orduan, “entretentzeko” beste modu batzuk bilatu eta besteak gogaitzen dituzte.
- Ez zaie eskatu behar ez duten edo erakutsi ezin duten autonomia. Eboluzio-irizpideak berrikusi behar dira. Ez dituzte adin bereko beste haurren eboluzio-patroiak. Ez ditugu gainerakoekin konparatu eta alderatu behar, beren eboluzioarekin baizik.
- Erruz ematea onespeneko adierazpenak eta errefortzu positiboak. Porrot egiteak eragiten dien beldurraren ondorioz, ikasitakoa erraz ahazten dute edo sinetsita daude ez dakitela. Haur horien kasuan, ikaskuntza eta afektuak oso loturik daude. Ezin dira bereizi.
- Emozio propioak kudeatzea. Maisuak edo maistrak haserrea, sumindura edo segurtasunik eza adierazten duenean, ikasle horiek nahastu egiten dira eta zigorra saihestean jartzen dute indar guztia, gaitzespenaren ondoren zigorraren beldur izaten dira-eta. Heldua presaka, haserre edo kezkatuta ikusteak are gehiago blokeatzen ditu.
- Parekoen taldearen laguntza bultzatzea estrategia egokia da. Batzuetan, beste haur batzuek irtenbide errazagoak aurkitzen dituzte.
- Ikaskuntza aktiboa sustatzea. Ikaskuntza bultzatzeko estimulazio hori estimulua ematen duen pertsonari eta egoera-testuinguruari loturik dago. Aldagai afektibo eta harremanen arlokoek azturak ikasteko baldintzak modulatzeko dituzte. Arauak eta ohiturak ezartzeko irmo eta eskakizun-maila egokiz jokatu behar da, baina garrantziasunik gabe. Pazientzia handia behar da eta mezuak etengabe errepikatu behar zaizkie, “disko akastunen” moduan.
- Erraz egiteko eta emaitza ona izateko moduko zereginak ematea. Jarduerari heltzeko gai direla ikusten dutenean, emaitza ona izateko laguntza ematen bazaie, hobeto kontzentratzen dira. Ez dute beren burua gainerako haurrekin konparatu behar, beraiek lortutako aurrerapenen bidez hobetzen ikasi behar dute.
- Arauak zehaztea; argiak eta ulergarriak izan behar dute. Zehatz-mehatz jakin behar dute zer eskatzen zaien; eskakizun zehatz eta neurgarriak egin behar zaizkie eta eskatutakoa ez betetzeak zer ondorio izango dituen jakin behar dute. Mugak garbi edukitzea oso lagungarria da.
- Etxerako lanak berrikustea, eskolaren eta familiaren arteko jarraitutasuna hauteman dezaten. Etengabeko komunikazioa familiarekin, eta, ahal dela, idatzien bidez, batez ere jarraipenari buruzko mezuak igortzeko edo gorabeheren berri emateko. Helduaren presentzia aktiboa nabaritu behar dute, etengabe baina itogarri suertatu gabe. Helduaren konpainia, laguntza eta errefortzua sentitu behar dute.

4. Haur adoptatua izatea

4.1. Ikasle adoptatuentzat adopzioak duen esanahia, ikasleen eboluzio-etaparen arabera

Haur-eskolarako adina, 0tik 5 urtera

Ez dute galera-sentimendurik adierazten adoptatuak direla agertzen dietenean. Kontatu dieten istorioa hitzez hitz errepikatzen dute, eurek asmatutako beste fabulazio eta fantasiekin batera, lagungarriak suertatzen baitzaizkie beren berezitasunak azaltzeko (etnia, aurpegiera, etab.). Ez dute jaiotzaren eta adopzioaren artean bereizten. Familiaren definizioari dagokionez, elkarrekin bizi diren pertsonen taldetzat hartzen dute familia. Etapa horretan, badakite haur adoptatuak direla, baina oraindik ere ez dira jabetzen helduentzat horrek dituen esanahi guztiez. Etaparik egokiena da adoptatuak direla jakiteko. Jakinarazi behar zaie “beste ama baten sabelean egon zirela, ez haien amaordearen sabelean” eta zikoinak ez zuela okerreko familiarengana jo, ezta okerreko herrialde eta etxera ere.

Eskola-adina; Lehen Hezkuntza, 6tik 12 urtera

Haur adoptatua izateak zer esan nahi duen ulertzen hasten dira. Odoleko harremanak loturiko pertsona talde gisa kontzeptualizatzen dute familia. Adopzio guztietan izandako abandonu-egoera garrantzia hartzen hasten da. Adopzioa haien familiaren eraikuntzat hartzen dute; baita, ordea, haien “beste familiaren” galeratzat ere. Horren ondorioz, haur adoptatu gehienek anibalentzia-jarrera agertzen dute beren adopzioaren inguruan. Gai horri dagokionez, agresibitatea, inkomunikazioa, suminkortasuna edo malenkonia ager dezakete. Desberdintasun deserosotzat har dezakete. Hori guztia abandonua bereganatzeak dakarren doluarekin loturik dago. Hortik aurrerako etapan, gaia ulertzen dute, baina nerabezaroan gatazkak berpiztu egiten dira.

Pubertaroa eta nerabezaroa, 13 urtetik aurrera

Etapa horretatik aurrera, adoptatuak izatea zer den ondo uler dezakete eta beraien nortasunaren hutsunetza hartzen has daitezke. Linea genealogikoarekiko lotura galdu izana bere nortasunaren zati baten galeratzat hartzen du adoptatuak. Eta hainbat galdera egiten dio bere buruari, hala nola: Nor naiz ni?, Orain zer izango ote nintzen?, Nolakoa izango nintzateke...? Hasierako abandonua zauri existenzial bihurtzen da, “bizitza osorako orbaina uzten duena”, eta besteek konfiantza eta baldintzarik gabe onartzen dutela hauteman ezean ez du zauri horren berri emango.

4.2. Adoptatua izatea gelan lantzeko edukiak

Adopzio-prozesu ororen kultura- eta gizarte-alderdi guztiak lantzeko moduan egon behar du eskolak. “Ikasle adoptatuen bizitzari buruz zenbat jakitea komeni da?” galderaren erantzuna honako hau da: zenbat eta gehiago, hainbat eta hobeto. Emozioen eremuari gagozkiola ikasle adoptatuaren eta haren familiaren intimitaterako eskubidea errespetatuta betiere, zenbat eta gehiago jakin, hainbat eta laguntza handiagoa emateko moduan egongo gara, familiaren zeregina osatzeko, haurrak adoptatua izateari buruzko mezuak eta edukiak hein handiagoan berrets ditzan.

Agerpena deritzo teknikoki norberaren abandonuko/adopzioko historiarekin adiskidetzeko lanari. Ez da une jakin bat, prozesua baizik, adopzioaren aurreko esperientziak bereganatzera, ulertzera eta esperientzia horiei esanahi egokia ematera bideraturiko prozesua, hain zuzen ere. Eskolak alderdi hori lan dezake, adopziozko familiarekin lankidetzan eta harekin koordinatuta betiere, honako ideia hauek egoki erabiliz:

Familian bizitzeko hainbat modu dago gure gizartean, eta haurrak modu askotan bizi daitezke beren familiekin. Familia nuklear klasikoaz gain, bestelako familiak ere badira, hala nola guraso bakarrekoak, berregituratuak edo famili-astreak, homoparentalak, harrera-familiak eta adopziozkoak.

- ▶ Familian bizitzeko hainbat modu dagoela jakin behar dute haurrek, baita era guztietako diskriminazioekiko zero tolerantzia dagoela ere.
- ▶ Haurrek ez dute beren guraso biologikoek abandonatu izanaren errua. Ez dute abandonu-egoera bizitzea merezi izateko moduko ezer egin. Abandonatzea eta adopzioan ematea helduen erantzukizuna da, ez da gaizki portatzeagatik jasotako zigorra.
- ▶ Batzuetan eta askotariko arrazoiak tarteko (gaia dagokion testuinguruan kokatu behar da), zenbait gurasok ezin dute seme-alaben kargu egin, eta, haurrak babesteko, zaintzeko moduan dauden gurasoak bilatzen dituzte.
- ▶ Haurrak abandonatzera daramaten bizi-baldintzak ongi azaltzen ditugunean, gaia dago-kion testuinguruan kokatzen dugu; azalpen hori betiere guraso biologikoak epaitu gabe eta mespretxatu gabe egingo dugu, haiei buruzko aurreiritziak indartu gabe.

- ▶ Adopzio ororen atzean, egoera hori azalduko duten zertzelada pertsonal eta sozialak daude. Beraiek eragin ez duten abandonuaren biktimak dira adoptatu guztiak, eta abandonu horrek askotariko zauri eta ondorio txarrak uzten dizkie denei. Haurrak abandonatzera daramatzaten gizarte-fenomenoak –pobrezia, drogazaletasuna, prostituzioa, delinkuentzia, alkoholzaletasuna, gerra, etab.– ulertzeko eta fenomeno horiekin emozionalki adiskidetzeko aukera ematen dien giroan hezi behar dira adoptatuak. Izan ere, horrela lortuko dute beren jatorriaren alde batekin adiskidetzea eta adopzio-munduarekin hobeto identifikatzea, baita familia biologikoarekiko gainidentifikazio-jarrerarik eta idealizazio-jarrerarik ez izatea ere. Hortaz, ez ditugu aipaturiko egoerak justifikatu behar; aitzitik, adoptatuari bere bizitzaren historia ulertzeko bide eman behar diogu.
- ▶ Familiek bi lotura mota izan ditzakete: lotura biologiko edo odolekoak, eta sozioemotionalak edo adopziozko familien loturak. Adoptatuek gurasordeak dituzte; gurasordeak ezagutzen dituzte eta haiekin bizi dira, eta haienak dira lotura afektiboari dagokionez, baita juridikoki ere; era berean, (beren familiari buruz ezer ez badakite ere) guraso biologikoak dituzte (eta agian bestelako senitartekoak ere bai), ezagutzen ez dituztenak, baina eremu emozional sinboliko handia betetzen dutenak.
- ▶ Narrazio-teknikak –bizitzari buruzko ipuin, kontakizun eta istorioak– baliabide erabilgarria izan daitezke adopzioaren gaia lantzeko, tutoretza-eremuetan erabiltzen badira. Ikus dezagun hainbat adibide.

4.3. 7 urtetik beherakoei adopzioa azaltzeko ipuina, Bisa-Misa hartzatxo adoptatuaren istorioa

Bere familiarekin basoetan bizi zen hartzatxo emea zen Bisa. Hartz marroiz osatutako familia bat ziren, eta basoetan aurkitzen zuten janaria jaten zuten (frutak, sustraiak, intsektuak, arrautzak, eta, tarteka-marteka, baita haragi pixka bat ere). Ez ziren handiak, basoan barrena ibiltzeko hobe baita txiki samarra izatea. Bizimodu zoriontsua zuten basoan. Egun batean, ordea, ke-laino bat eta argi bat ikusi zituzten. Hasieran, urruti zituzten, baina basoan bizi ziren eremura azkar gerturatzeko ari zirela ikusi zuten. Boso hartz aitak Bosa hartz ama ohartarazi zuen, eta berehala konturatu ziren sutea handia zela, basoa desagerrarazten ari zela, alegia. Bosok eta Bosak ihes egiteko unea zela erabaki zuten eta Bisa esnarazi zuten. Mendietan gora igo behar zuten, suak harrapatuko ez bazituen. Korrika eta korrika ibili ziren, eta, bat-batean, amildegi bat topatu zuten. Amildegia hondoan, ibai bat zegoen. Sutatik salbatzeko, salto egin behar izan zuten, eta hantxe hil zen Bisaren familia guztia.

Bere onera etorri zenean, aita Boso eta ama Bosa dagoeneko ondoan ez zituela konturatu zen Bisa. Busti-bustita zegoen ibai-ertzean eta bi aurpegi arre begira eta miazka zituen. Moso eta Mosa ziren, mendietako bi hartz arre handi, eta zaintzen ari zitzaizkion. Bisa oso triste eta beldurtuta zegoen, ama Bosaren eta aita Bosoren falta sentitzen zuen. Baina desagertuta zeuden, eta Bisa mendietan zegoen, etxetik oso urruti. Denborak aurrera egin zuen, eta Bisaren gurasoak agertzen ez zirenez, Mosok eta Mosak hura adoptatzea erabaki zuten. Bisa ez zen izen egokia mendiko hartz eme batentzat eta Misa izena jarri zioten. Orduan, mendiko hartz baten bizimodu ikasi behar izan zuen Misak. Hasieran, arraina ez zitzaion gustatzen eta ehizan egitea ulergaitza suertatzen zitzaion. Hori guztia arraro samarra iruditzen zitzaion, baina Moso eta Mosa ondoan zituen, maite zuten eta mendian bizitzen irakasten saiatzen ziren.

Tarteka, Misa izugarri haserretzen zen, ezer ez zuela ikasiko uste zuen, eta amorrazio bizia nabaritzen zuen beste hartzatxoek barre egiten ziotenean ile marroi zoragarria zuelako eta mendiko gainerako hartzatxoak baino txikixeagoa zelako. Batzuetan, ile-kolorez aldatzeko gogoia izaten zuen. Egun batean, harea griseko tontor batean iraulkatu zen, besteak bezalakoa izateko. Harea grisez beteta, eta, beraz, kolore grisa hartuta ikusi zutenean, barregarria iruditu zitzaion Mosori eta Mosari, eta hau esan zioten: “zure ile marroia egokia da eta polit-polita zara, eta ez dago ondo besteek burla egitea”. Pixkanaka, izokina eta amuarrainak arrantzatzen ikasi zuen Misak, baita ehizatzen ere, baina ez zuen ahazten bere garaian Bisa izan zela, basoko hartzatxo, alegia. Eta zuhaitz bat ikusten zuenean, zuhaitza handi-handia izanda ere, berehala igotzen zen, besteetan aurrean harropuzarena eginez. Izan ere, zuhaitzetara igotzen eta intsektuak, ezti-abaraskak eta basoko frutak bilatzen mendiko edozein hartz edo hartzatxo baino askoz ere trebeagoa zen, bai horixe! Eta hala, bere bizileku, familia eta izen berriak onartzen hasi zen pixkanaka.

4.4. 8-12 urteko ikasleentzako kontakizunak

Adin horretako haurrek gauza gehiago jakin behar dituzte beren jatorriari buruz, datu eta zehaztasun gehiago, alegia. Seme-alabak abandonatu eta adopzioan emateko helduek zer arrazoi dituzten jakin behar dute, edo zergatik erabakitzen duten agintariek guraso-ahala kentzea eta haurrak beste guraso batzuei ematea. Beraz, haur adoptatu askok onartu egin beharko dute beren gurasoek arazo sozial, familiar eta pertsonalak zituztelako eman zituztela adopzioan. Hainbat fenomenoren zergatia ulertu behar dute, hala nola pobrezia, toxikomania, buru-gaixotasuna, tratu txarra, etxeko indarkeria, alkoholazetasuna, delinkuentzia, eta abarrena. Beren adopzioan tarteko izan ziren zertzeladak ulertu behar dituzte, aurreiritzirik gabe eta zertzelada horiek dagokien testuinguruan egoki kokatuta.

Adin horretarako kontakizunaren teknika zailagoa eta labainagoa da teknika hori kudeatzen duten helduentzat; izan ere, etapa horretan haurrek badakite abandonuaren edo babesgabetasunaren ondorioa izan dela adopzioa. Adopziozko guraso batzuen eta hainbat profesionalen ustez, nahikoa litzateke honako hau esatea haur adoptatuei: “Zure ama oso gaztea zen, zure aitak drogak hartzen zituen eta tratu txarrak ematen zizkion amari; egun batean, zure amak umezurtz-etxera eraman zintuen eta ez zen inoiz zure bila itzuli; horregatik adoptatu zintuzten”. Oro har, ez gara ausartzen kontakizunak edo istorioak kontatzen, narrazio-elementu gogorak izaten dituztelako; baina adoptatu batek bere historia ongi ulertzeko, eta, are garrantzitsuagoa, okerreko atribuziorik egin ez dezan –hala nola “gaiztoa naizelako, aiurri txarrekoa naizelako, edo ikasten ez dudalako, edo esan txarrekoa naizelako eta beste haurrak jotzen ditudalako abandonatu ninduten”–, informazioa eman behar zaio, banantzea egoera guztiz larri baterako irtenbidea izan zela uler dezan.

Zoritarrez, zauri emozionalak dituzten haurrek beldurrezko irudipenak egiten dituzte, eta, askotan, irudipen horiek errealitatea baino beldurgarri eta nahasgarriagoak izaten dira. Boris Cyrulnik psikiatraren esanetan, “errealitatean oinarrituriko lasturan bada itxaropen txiki bat. Irudipenezko lastura erabatekoa da”. Horregatik, kontakizunak lagungarriak izan daitezke haur adoptatuek abandonuaren egiazko arrazoiak ulertzeko eta abandonu hori onartuta, beren patuarekin adiskidetzeko.

Ikus dezagun, kontakizun bihurtutako egiazko istorio baten adibidea.

Inoiz pentsatu duzu zergatik haur batzuk ez diren beren familiarekin bizi? Zenbait gurasok bizimodu zaila izan dute, arazo ugari alegia: pobrezia, gaixotasunak, edo bestelakoak. Zailtasun horien ondorioz, ezinezkoa zaie beren burua edo beste batzuk zaintzea. Baita seme-alabak zaintzea ere. Batzuetan, tratu txarrak ematen dizkiete, eta zenbaitetan damutu egiten dira ondoren.

Honako istorio honetako neska familiak aipatu ditugun arazoak zituen. Aita alkoholzalea zen eta, askotan, etxeratzen zenean liskarra eta zalaparta izaten zen bertan. Amak, tarteka, ospitalean eman behar izaten zituen denbora-tarte batzuk, eta gure neska 14 urte zituenean, egoitza batean ingesatu behar izan zuten ama. Gure neska ez zen inoiz ongi ibili eskolan, eta, beraz, institutura joateko adinera iritsi zenean, ikasketak utzi eta lan bila hasi zen. Fabrika batean hasi zen lanean, eta, bertan, mutil bat ezagutu zuen. Maitemindu eta elkarrekin bizitzera joan ziren. Handik pixka batera, eta guraso izateko oso gazteak izan arren, haurtxo bat izan zuten, mutiko polit bat. Haurtxoak oso heldugabeak dira eta ongi zaindu behar dira; askotan negar egiten dute eta helduok ez dakigu zergatik: hotzak edo goseak daudelako, amets baten eraginez, etab. Egia esan, haurtxo bat zaintzeko pazientzia eta balibideak izan behar dira, baita nola egin jakin ere, eta gure neskaentzat oso zaila zen bere haurtxoa zaintzea.

Egun batean, haurra ospitalera eraman behar izan zuen, ezutka eta negar batean zegoelako. Han, hainbat galdera egin zioten nola zaintzen zuen jakiteko, eta oso gaizki pasatzen ari zela kontatu zien neska. Pediatrak oso adoretsua zela esan zion; izan ere, gazte-gaztea zen eta haurtxo batez arduratzen saiatzen ari zen; hala ere, haurra behar baino askoz ere txikiagoa zen, garaierari eta pisuari zegokienez. Hala jarraituz gero arazo larriagoak izango zituela azaldu zion. Era berean, hark behar bezala zaindu ezin bazuen, laguntza eska zezakeela azaldu zion, haurraren kargu egiteko eta zaintzeko. Neska oso triste zegoen, oso maite zuen-eta bere haurra; hura zorionsua izatea eta behar bezala zainduta egotea nahi zuen, baina neska ezin zuen behar bezala zaindu eta ez zion haurrari minik eman nahi. Azkenenean, bere bizitzako erabakirik zailena hartu zuen: erakunde baten zaintzapean utzi zuen semea, erakundeak beste familia bat bila ziezailen, eta handik aurrera uko egin zion haurtxoaren ama izateari.

Era horretako kontakizunak errealagoak dira; konfiantzazko norbaitek kontatu behar ditu, egiten dizkieten galderei zintzo eta adoretu erantzuteko prestatuta dagoen norbaitek kontatu ere. Istorioa kontatzen dieten bitartean, hurrek giro goxoan egon behar dute, eta emozioak adierazteko eta legitiimatzeako aukera izan behar dute. Teknika horretarako prestakuntza espezifikoak behar da. Era horretako kontakizunak nahiko sendagarriak dira: haurra eta haren familia biologikoa errugabetzen dituzte, abandonurako irtenbide bihurtzen dute adopzioa, fantasiako azalpenak eteten dituzte eta nor bere historiarekin adiskidetzearrasten dute.

5. Adoptatuak hazten direnean. Haien nerabezaroa

5.1. Beste etapa bat Asierrentzat

Asierrek 14 urte ditu, eta gelakideek nahiz irakasleek maite eta errespetatzen dute. Ikastetxeko jardueretan parte hartzen du eta kiroletan gailentzen da; ikastetxeko taldean jokatzeko du. Lider-sena ere badu, eta gelakideei adarra jotzea gustatzen zaio. Joan den astean, patioan jolasten ari zirela, taldekide batek iseka egin zion, “adoptatu alua” deituta. Asier seko geratu zen, eta, di-da batean, lepotik heldu eta joka hasi zitzaion, bi irakaslek banandu zituzten arte. Amorratioak itsututa zegoen, eta lasaitzen hasi zenean tutorea harekin geratu zen. Bazirudien ez zuela gertatutakoa gogoratzen, beste norbaiti gertatu balitz bezala; hala ere, tarteka, “larrutik ordainduko dit” esaten zuen marmarka. Adiskidetzeko ekitaldi txiki baten ondoren, handik egun pare batera berriz ere elkarrekin zeuden, ezer gertatu izan ez balitz bezala.

Azken bolada honetan, hiru mutil zaharragorekin ibiltzen da jolas-garaian eta eskolatik irtetean; Asierren ateraldiak barrez hartzeaz gain, enkargu txikiatarako erabiltzen dute, eta hark gogo onez betetzen ditu. Handien bultzada duela ikusi duenetik, maizago oilaritzen da, gelakide nahiz irakasleekin. Lekukorik ez dagoenean eta bakarka hitz egiten zaionean, ordea, zentzudunago jokatzeko du.

Asierren eskola-errendimendua nabarmen jaitsi da eta maila errepikatzeke aukera aztertzen ari dira. Orain ez du irakasgai bakar bat ere gainditzen. Badirudi ikasketetarako motibazioak ihes egin diola. Lehen ez zen ikasle bikaina, justu-antzean ibili izan da beti, baina gainditzen zuen. Batzuetan Ekonomia Zientziak ikasi nahi dituela esaten du, ez duela etxeko txoriburua izan nahi, lehengusu-lehengusina guztiek karrera eginda dute-eta. Beste batzuetan, berriz, dena utzi eta Lanbide Hastapenerako Ikastegira joango dela esaten du, eta bi urteren buruan lanean ariko dela, nazkatuta baitago ikasteaz, ez duela ezer gogoratzen eta nazkatuta dagoela ikastetxearekin, ezin duela gehiago. Emozionalki akituta dagoela dirudi.

Etxekoak oso kezkatuta daude. Bitan-edo mozkortuta etxeratu da eta erretzen ote duen susmoa dute. Gero eta istilu gehiago izaten dituzte ordutegiak direla-eta. Goizetan, kostata eta oso umore txarrean jaikitzen da. Etxera iristen denean, bere gelan sartzen da bideojokoekin jolastera edo etzanda egoten da telebistaren aurrean. Azken asteotan, gurasoak mehatxatzen hasi da: udan gaupasa egiten uzten ez badiote, etxetik alde egingo duela esaten die. Ama larderiak tratatzen du, eta aitak esaten duenez, askotan bere burua kontrolatu behar izaten du zaplazteko bat ez emateko.

5.2. Pubertaroa eta nerabezaroa, desberdinak horiek ere adoptatuentzat

Haurren sexu- eta ugaltze-heldutasuneranzko heltze fisikoaren prozesua da pubertaroa. Aldi horretan, honako hau da galdera nagusia: *Nolakoa naiz eta nolakoa izango naiz?* Adoptatuen kasuan, zalantza handiagoa sortzen da galdera horri erantzutean; izan ere, guraso biologikoekin bizi direnek gero izango duten aurpegiara nolabait aurreikus dezakete, senitartekoekin duten antza kontuan hartuta; adoptatuentzat, ordea, hori zailxeagoa da, ez baitute erreferentzia biologikorik.

Nerabezaroa, berriz, psikologia- eta gizarte-arloko heltze-prozesua da, emantzipazioranzko eta nortasuna finkatzeko urratsa, alegia. Eta pa horretako alderdi existenziala honako hau da: *Nor naiz ni?* Adoptatuek ahalegin handiagoa egin beharko dute prozesu horretan. Haien emantzipazioa bikoitza izango da; izan ere, familia biologikotik emantzipatu beharko dute; ez dute familia hori ezagutzen, baina nortasuneko ezaugarriak eta kuotak ematen dizkie. Horrez gain, jasandako abandonua berriz bizi izana gainditu beharko du adoptatuak eta jatorriaren alderdi negatiboekin adiskidetu beharko du.

Nortasunaren bilaketan sustrai propioez jabetzeko beharra sentitzen du

- Adoptatuek bi guraso mota dituzte: guraso biologikoak eta sozialak. Adoptatuak bi guraso motengandik jasotzen ditu bere nortasuna eratzeko elementuak. Elementu horiek kontrajarriak dira, eta, askotan, elkarren aurkako gatazkan daude. Nerabe adoptatuek emantzipazioko eta autonomizazioko prozesu bikoitza egin behar dute: adopziozko familiari dagokiona eta familia biologikoari dagokiona.
- Kalte emozionalaren historia nortasuneko eta kausalitateko terminotan gauzatuko da, “bizitzak jukutria gaiztoa egin dii” ideia ardatz gisa hartuta. Jatorriarekiko eta bizitza-zertzeladekiko adiskidetzeari ekin behar diote, eta horrek kalteberagoak bihurtzen ditu. Nerabe adoptatuek modu kritikoa heldu behar diote beren historia propioari. Jasan duten abandonuaren zioak, arrazoiak eta zertzeladak ezagutzeko beharra izango dute. Abandonuak eragindako zauri existenziala desorekaren, zalantzaren, amorrazioaren, atsekabearen eta abarren iturri gehigarria izango da.
- Agresibitatea sentimendu sailhestezina da, ez da “gaiztakeria”. Hasierako abandonu-prozesuko dolu eta galerei loturik dago. Emozioen arloko prozesu hori berriz bizi ohi dute adoptatuek helduekin egunerokotasunean dituzten gatazketan, batez ere, adoptatu dituztenekin; horren ondorioz, amorrazioa sentitzen dute askotan eta amorrazio hori indarkeriaz adierazten dute.

Nerabe adoptatuek beren historiari aurre egin beharra

- Nerabezaroan, oso litekeena da adoptatu dituztenen eta adoptatuen arteko harremanak gorabehera handiak izatea: “Ez zarete nire egiazko gurasoak”. Are arraro eta arrotzago sentituko dira, eta, gatazka-testuinguruan, guraso biologikoen idealizazioa eta haiekiko gainidentifikazioa sustatzen da.
- Litekeena da beren historia eta jatorriarekiko interesa bere-beretzat eta pribatutzat hartzea, eta konpartitu nahi ez izatea. Izan ere, guraso biologikoeikiko interesa agertuta, adopziozko gurasoak mintzeko beldur izan daitezke. Sarritan, abandonuari loturiko tristura, gorrotoa eta minari laguntzarik gabe egiten diete aurre, bakarrik, babesik gabe. Emozioak ukatzeko eta erreprimitzeko duten joeraren ondorioz, beren historiari aurre egiteko muga eta errepresio handiagoa dute. Baliteke beren jatorriarekin harremanetan jarri nahi izatea edo informazioa lortu besterik nahi ez izatea. Agian, hainbat saiakera egingo dute eta azken unean atzera egin. Nolanahi ere, hau da garrantzitsuena: adoptatuek markatzea erritmoa.
- Bere historiari hutsunerik eta fantasiarik gabe aurre egiteko aukera izan behar du nerabe adoptatuak, baita egiazko gertakizun eta oroi-tzapenei heltzekoa ere, nahiz eta horrek etsipena eta atsekabea ekarriko dizkion. Ez diote abandonuaren errua beren buruari leporatu behar.
- Bi familia-historia izatea ez da arazoa; bi historia horien esanahiak kontrajarriak izatea eta haiek bateratzeko loturarik ez izatea da arazoa. Jasotako informazioa oso garrantzitsua da; izan ere, informaziorik ezak gertatu zenari buruzko fantasiak sorrarazten ditu.

Hurtzaroan tratu txarrak jasandako nerabe traumatizatuen zailtasun gehigarriak

- Egun duten integritaterako mehatxu existentzial gisa biziko dituzte berriz iraganeko emozioak. Haien autokontziantza eta helduengan duten konfiantza ahuldu egiten dira. Litekeena da emantzipatzeko prozesuan babestuko dituen inor inguruan ez dutela sentitzea, ezta haietaz eta sentitzen duten atsekabeaz eta nahasmenaz arduratuko denik ere. Jendea arbuiatzen dute, baina,aldi berean, onartzen dituztela sentitu nahi dute.
- Desioen eta premien eta errealtate-printzipioaren arteko oreka erregulatzen duten autokontrolerako gaitasunak oraindik ere ez dituzte behar bezain garatuak. Jokabide-nahasteak eta abandonuaren bestelako ondorio txarrak dituzte. Helduen, hezitzaileen eta familiaren maitasuna, afektua, laguntza, babesa eta baldintzarik gabeko onespenera eutsi behar diote.
- Kalte emozionalaren ondorioz, biktimaren rolaren ordeztasunaren rola har dezakete, bizi duten egoera behin-behinean kontrolatzeko. Indarkeriarekiko miresmena senti dezakete, baita indarkeriaz jokatu ere. Beste nerabe batzuen gidaritzapean dihardute eta ez dituzte beren portaerak kontrolatzen, edo gutxi kontrolatzen dituzte.

5.3. Nola lagundu nerabe adoptatuei

Nerabearoko krisialdian, laguntza-harremanari eutsi behar zaio, baita hura doitu ere, nahiz eta batzuetan harreman horri uko egiten dioten, behar ez dutela iruditu edo, besterik gabe, alferrikako harremana izan: “Orientazioa bai, erabateko kontrolik ez”. Etapa horretako hezkuntza-harremanaren oinarriek honako hauek izan behar dute:

Koherentzia, sendotasun, tolerantzia, hurbiltasun, goxotasun eta malgutasunean oinarrituriko heldu-ereduak

- Helduek orientazioa eta autonomiaz portatzeko aukerak eman behar dizkiete aldi berean, nahiz eta nerabeek oker jokatu edo asmatu ez. Bete dezaketena baino gehiago hitzematen dute nerabeek. Heldu autoritario, kontrako eta erasokorraren ereduak ez du konfiantza eratzea ahalbidetzen. Beren gatazkez eta desadostasunez hitz egiteko aukera ematen dieten helduak behar dituzte. Gehienek ez dute norekin hitz egin beren egoera bereziari buruz, parekoen taldea funtsezkoa den garai horretan.

Arau argiak eta igurikapen errealistak. Irmotasuna, afektua adieraziz

- Garrantzitsua da nerabe horiei arauak eta haiengandik espero duguna azaltzea, betiere ikuspuntu errealistatik, baita konfiantzazko botoak ematea ere, hitzarturikoa beti betetzen ez badute ere. Era berean, garrantzitsua da igurikapen errealistak izatea, nerabeen ahalbideekin bat datozenak, alegia. Baliteke egokiena ez izatea onena. Egiten duenaren ardura hartzera bultzatu behar da nerabe adoptatua, afektuz eta erretolika handirik gabe.

Komunikatzeko goxotasunez, afektuz, errespetuz eta garratzasunik gabe aritzea

- Harremanak konfiantza eta segurtasuna transmititu behar ditu. Oker egiten duenean, ez aurpegiratu; toleranteak izatea komeni da.
- Tarte emozionala ezartzea, helduekiko harremanetan agertzen duten amodioa-gorrotoa/arbuioa-onespena anbibalentzia onartuta. Prestasuna eta sendotasuna agertzea sentimendu kontrajarrien eta borroken aurrean.
- Nerabearen agresibitateari eustea eta agresibitate hori bideratzea, nerabeak kudeatu ezin duenean. Asertibitatez erreakzionatzea, ironiarik eta probokaziorik gabe, eta mespretxatu gabe. Haren amorraziotik emozionalki babesten eta haren eskubideak errespetatzen ikastea. Gaizki jokatzek ez dizkio eskubideak kentzen, ezta dituen betebeharez salbuesten ere. Beharrezkoa bada, laguntza espezializatua bilatzea.

6. Eskolaren egitekoa

6.1. Eskola erresilientziarako eremu gisa

Fisikaren eremutik ekarritako kontzeptua da erresilientzia. Bizi-esperientziek kalteturiko edo traumatizaturiko gizakiaren egoerari aplikatuta, bizitzak emandako kolpeak gainditzeko gaitasuna da. Kontzeptu horren definizioek norberaren baliabideak eta harremanen testuinguruaren ezaugarriak (familia edo kanpoko laguntzak, halakorik badute) dituzte kontuan. Erresilientzia edo haur adoptatuak bere hutsuneak betetzeko duen gaitasuna honako hauen baitan dago:

- Temperamentua, izaera, euskarri neurologikoa, indar fisikoa, estresarekiko tolerantzia, etab.
- Besteek (familia, errehabilitazio-programak, babeserako gizarte-sarea, etab.) kanpotik emandako babes eta laguntzak.
- Gertaera mingarriak hartzen duen esanahi kulturala. Nerabeari bere desberdintasuna ulertzen laguntzen diogun moduaren arabera da esanahi hori, bere historiarekin adiskidetzea lortzearen arabera, alegia.

Litekeena da ikasle adoptatuek beren iraganeko ondorio txarrak agertzea eskolan, hala nola integrazio-prozesu zailak, ikasteko zailtasunak eta parekoekiko borrokak eta gatazkak. Batzuetan, nahasteak ere izan ditzakete, hala nola hiperaktibitatea eta arreta falta, besteak beste. Bizitzak emandako kolpeen adierazgarritzat hartu behar dira sintoma horiek guztiak, eta eskola-bizitzan ere izango dute eragina.

Eskola da zauri emozionalak dituzten haurren erresilientziarako eremurik onenetako eta hornituenetako bat. Ikusiko dugunez, egoerarik okerreanean dauden ikasleen erresilientzia-prozesua bultzatzeko estrategiak eta aukerak dituzte beti hezitzaileek, askotan horretaz ohartuta ez badaude ere.

6.2. Hutsuneak betetzeko eskolak ahalbideturiko ekintzak

Eskolako bizikidetzan egunero izan ohi den harremanak aukera ugari ematen du kalte emozionala duten haurrek hutsuneak bete ditzaten eta erresilientziarako esperientziak izan ditzaten. Horien artean, honako hauek biltzen dituztenak nabarmen daitezke:

- Harreman emozional egonkor eta seguruak, haurrari pertsona adierazgarri edo erreferentzial bat edo gehiago izateko aukera ematen diotenak, haiekin batera segurtasunezko oinarria eratzeko aukera izan dezan, bere burua berreraikitzeo eta zauriak sendatzeko.
- Hainbat programa eta planetan parte hartzea, hala nola eskola-arloko laguntzako eta errefortzuko programetan, hezkuntza-plan egokituetan, eta eskolaz kanpoko nahiz sozializatzeko aisialdiko jardueretan. Kalte emozionala jasandako haurren gaitasun eta trebetasun kognitiboak sustatzen dituzten programa eta norbanako curriculum-egokitzapenak. Norberaren irudi positiboa garatzea, autoeraginkortasun-bizipenen bitartez.
- Hezkuntza-giro ireki eta malguko bizikidetzak, emozio, gatazka eta harremanei eusten dien giroko bizikidetzak, alegia. Muga argi eta arau sendo, irmo eta ulergarriak ezarrita.
- Irakasleek gatazka-egoerei eustea, zauri emozionala duen haurraren premien arabera eutsi ere, haurraren interesak kaltetu gabe eta haren integritatea errespetatuz. Gatazka egoerei modu konstruktiboan aurre egiteko motibazioa bultzatzen duten hezkuntza-ereduak.
- Bitartekaritza egiteko eta estresa eragiten duten egoera edo faktoreei modu aktiboan aurre egiteko esperientziak. Egoerari denbora errealean eta ahal bezain laster heltzea. Frustrazioak, kritikak eta gatazkak maneiatzen modu aktiboan ikastea.
- Esanahi subjektibo eta positiboa ematea kaltea eta sufrimendua eragin dizkieten egoera mingarri eta estresagarriari. Adopzioa haurraren familiarren eta gizartearen jokabide positibo eta eskuzabala izan zela kontuan hartzea, eta hitzez adieraztea horixe bera.

7. Eskola eta familia: tandem egokia haur adoptatuarentzat

7.1. Adopziozko familia, familian bizitzeko beste modu bat

- *Ez ote dira gainerako familiak baino zorrotzagoak?*
- *Batzuetan, badirudi ez dutela konturatu nahi zer gertatzen zaion beren haurrari.*
- *Zergatik hainbeste begiramen gainerako familiak bezalakoak badira?*
- *Gainerakoak baino gehiago kezkatzen dira eta seme-alaben gainean egoteko joera handiagoa dute.*
- *Pixka bat lasaitu beharko lukete, ez baita hainbesterako.*

- ▶ Adopziozko familiak gainerakoen eginkizun berdinak eta antzeko eboluzio-fase eta zertzeladak ditu; baina, era berean, bestelako familia-bizitza du, ezaugarri espezifikokoak dituen familia-bizitza, hain zuzen ere.
- ▶ Adopziozko familiak gainerakoak bezain funtzional eta egokiak dira. Abandonua eta tratu txarren esperientziak jasan dituzten haurren premiak asetzeko erronkari egiten diote aurre.
- ▶ Adopzioak hainbat desberdintasun eragiten ditu; izan ere, gainerako familiek aurre egin behar izaten ez dieten bizi-esperientziak, zereginak, ahaleginak, erronkak eta zailtasunak dituzte adopziozko familiek:
 - Egokitasuna lortzeko izapideak eta gestioak; batzuetan, konplexuak eta etsigarriak izan daitezke.
 - Haurraren abandonuaren historiak eragindako kalte, ondorio txar, atzerapen eta nahasteek utzitako hutsunea bete behar izatea.
 - Haurrari adoptatua dela agertzea.
 - Adopziozko gurasoen eta haur adoptatuen arteko integrazio- eta egokitze-fasea.
- ▶ Jakina, gainerako familia-bizitzetan bezalako zeregin eta eginkizun asko ere badituzte. Baina adopziozko gurasotasuna biologikoa baino zail eta nekezagoa da, ezin dira alderatu. Zauri sakonak dituen haurra hezi behar dute.

Begien bistakoa da, baina gogoraraztea komeni da: adopziozko familiek ez dute beren seme-alaben jokabide- eta ikaskuntza-nahasteen errua. Adopziozko gurasoek ez dute beren seme-alaben abandonua eragin, ezta haien ondorio txar eta kalte emozionala ere. Aitzitik, adopziozko familiekin egindako ikerlanen arabera, familia-integrazioaren mailari buruzko balioespena oso positiboa da.

7.2. Gainerako haurrei dakartzkien ondorioak, eta haur horien nahiz haien gurasoen kexak

Ikasle horien hezkuntzari eusteko eta hezkuntza-prozesu hori kudeatzeko zailtasun objektiboen ondorioz, askotan entzuten dira honelako kexak:

- “Hartaz arduratzeko, gelako gainerako haurrak zaindu gabe utzi behar ditut, eta ez da bidezkoa haur horiek atzeraraztea; batzuetan, aukeratu egin behar da...”
- “Hainbatetan kexatu dira haren portaeraz”.
- “Gelakideek beldurra diote eta ez dute harekin ibili nahi”.
- “Ez dugu programan aurrera egiten; egun batzuetan, haren atzetik ibili besterik ezin dut egin, begien bistatik alde egin ez diezadan”.
- “Irakasle taldeko hainbat kidek kritikatu egiten naute haren alde egiteagatik eta lehentasunezko tratua emateagatik”.
- “Gelan, beste 20 haur ditut artatzeko”.

Alabaina, honelako testigantzak ere entzun izan ditugu:

- “Indian adoptaturiko neskato bat dabil nire semearen gelan, eta pozgarria da denen artean zaintzen eta babesten dutela ikustea. Nire semea solidarioagoa da orain, eta bizitza erraza izan ez duen neska horrengandik ere ikasten ari da”.
- “Adoptatzeko esperientziaren eraginez, heldu egin gara eta hobeak gara orain. Gure seme-alaba biologikoak ere bai, heldu egin dira eta arduratsuagoak dira”.
- “Aitortu behar dut hezkuntza-esperientzia horrek merezi izan duela. Nire uste osoak probatu behar izan ditut eta hori erronka izan da niretzat”.

7.3. Familiaren eta eskolaren arteko lankidetzaren printzipio gidariak

Adopziozko familiek gehien balioetsitako komunitate-baliabidea da eskola. Aldi berean, tentsio gehien sortzen duen baliabidea da; izan ere, adopziozko familia gehienak ohartuta daude beren seme-alabek sozializatzeko eta integratzeko zailtasunak dituztela. Eskola eta familia erakundeek elkar ulertu behar dute, haurren mesederako. Osagarriak izan daitezke lankidetzak-akordioak egiten dituztenean, edo batak bestea indargabetu dezake estrategia komunak aurkitu eta gauzatzea lortzen ez dutenean.

Irakasleen eta adopziozko familiaren lankidetzarako gakoak

- Guraso diren aldetik beren seme-alabak hazteko eta hezteko etxean dituzten zailtasunengatik errespetua eta ulertzen ditugula adieraztea. Hezitzaileek guztiz antzeko egoerak bizi izaten dituzte gelan. Gurasoak ulertzea eta haiekiko gizakidetasunez jokatzeko.
- Ez eskatzea beren seme-alabak “beste modu batean” portatzeko gelan. Ezin dute haurra etxetik gidatu eta hezitzaileek kudeatu behar dituzte gelako jokabideak.
- Ez leporatzea seme-alaben nahasteak, ezta horien errua egozteko eta horregatik mespretxatzea ere zera leporatuta: gaizki ari direla jokatzeko, gainbabesten dituztela, arduragabekeriak edo permisibitatez hezten dituztela, etab.
- Gelan gertatzen denaren berri ematea, informatuta egon daitezen eta etxerako lanak ahalik eta gehien koordinatzearen; izan ere, ikasle horientzat funtsezkoa da familiak eta eskolak bat egitea.
- Seme-alaben hezkuntza-premia bereziak asetzeko behar diren estrategiak koordinatzea.
- Baliabide espezializatuetara bideratzea, beharrezkoa denean (Osasun Mentala, Gizarte Zerbitzuak, Laguntza-baliabideak, etab.).
- Emaizta akademikoen inguruan dituzten igurikapenen maila jaisten laguntzea, baita seme-alabek emaitza ona lortzeko duten gaitasunarekiko errealistak izaten eta ahal dutenetik gorako ezer ez eskatzen ere.
- Agerpenaren prozesuari eta adoptatuak direla onartzeko seme-alabek egin beharreko prozesuari buruzko informazioa trukatzeko.
- Edukien curriculum-ibilbideak adopzioaren errealitateara, familia-historietara, zuhaitz genealogikoetara eta etnia- nahiz kultura-aniztasunetara egokitzea, gela ere aniztasuna ulertzeko esparru eta gune sinboliko emozionala izan dadin.

8. Bestelako laguntza-baliabideak

Gaur egun, familien elkarteak dira haur adoptatuen eta adopziozko familien egoerarekiko konpromisorik handiena duten erakundeak. Elkarte guztiek antolatzen dituzte laguntza- eta orientazio-jarduerak; horrez gain, biztanle adoptatuen eta adoptatzailearen premia espezifikoak asetzeko baliabiderik eraginkorrenak ezagutzen dituzte.

Erakunde horiek ematen dituzten zerbitzuen artean, honako hauek aipa genitzake: elkartze-bilerak, adopziozko gurasoentzako tailerrak, prestakuntza-mintegiak, dibulgazio-hitzaldiak, adopziozko familiekiko laguntzari buruzko konferentzia espezializatuak, adopzioari buruzko bibliografia-fondoen mailegua, materialen dibulgazioa, orientazioa eta aholkularitza, eta laguntza psikosozialeko programak. Hainbat autonomia-erkidegotan ezartzen ari diren adopzioaren ondorengo zerbitzuekin batera, solaskiderik kualifikatuenak dira. Honako hauek dira Euskal Autonomia Erkidegoko zerbitzu horien helbideak:

Ume Alaia Bizkaia

www.umealaia.com

Tel.: 94 615 65 25

Sak.: 656 797 063

umealaia@canal21.com

Ume Alaia Gipuzkoa

www.umealaia.com

Tel.: 943 48 86 93

Faxa: 943 11 25 89

Sak.: 655 72 69 11

umealaiagi@euskalnet.net

Asaldenia Álava

www.asaldenia.org

Sak.: 649 829 858

CORA

www.coraenlared.org

Anichi Elkarte

www.anichi.org

Sak.: 677 190 739

Adoptia programa

www.agintzari.com

Tel.: 94 447 05 47